

Paperak eta paperak... hiritarren munduan sartuta



Hizkuntzen trataera bateraturako
materialak
DBH4 ikasleen koadernoak
Arantza Intxausti. Cristóbal Gamón BHI.

HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUEN PROGRAMA

PROGRAMA DE TRATAMIENTO INTEGRADO DE LAS LENGUAS

DBHko 4. mailarako materialak / Materiales para 4º de E.S.O.

PROIEKTUA/PROYECTO: Paperak eta paperak ..., hiritarrak gara. Papeles y más papeles..., ejerciendo de ciudadanos.

EGILEAK/AUTORAS: Arantza Intxausti y Blanca Valerio. Cristóbal Gamon BHI.

UNITATEAK/UNIDADES:

- Paperak eta paperak..., hiritarrak gara: instituzioen munduarekin lotutako agiriak
- Papeles y más papeles..., ejerciendo de ciudadanos: documentos relacionados con el mundo laboral

Aurkezpena

DBH amaitzeaz zaudeten gazteok, helduen munduan murgilduko zarete berehala, eta, une horretan, erakunde edo instituzioekiko (kultura, kirola, hezkuntza, administrazioa...) harremanek gero eta garrantzi handiagoa izango dute. Harreman mota horietan, idatzizkoak gehienetan, erabili beharreko, hau da, ulertu eta sortu beharreko idazkiek ezaugarri espezifikoak dituzte; beraz, ikasi beharrekoak.

Proiektu honetan, diskurtso instituzionala ulertzen eta sortzen arituko gara (kontuan hartzekoa da hizkera oso formala dela, eta ondorengo ezaugarriak dituela: zuzentasuna, zehaztasuna eta argitasuna).

Proiektu honetan testu guzti horietan arituko gara. Honela, euskaraz eskolaren eta instituzioen esparruekin lotutako dokumentazioa landuko duzue. Azken ekoizpena egoera bati buruzko txostena eta Udaletxeko sail batetara edo Organo Gorenari zuzendutako instantzia baten ekoizpena izanik. Gaztelaniaz berriz, zuek aukeratutako lan eskaerarako beharrezko dokumentazioa egitea izango da azken ekoizpena.



Unitatearen ardatza

MOTIBAZIO JARDUERA 1. jarduera: Zer egingo duzue ikasturtea amaitzean?
1. LAN-SEKUENTZIA- UDALAREKIKO HARREMANAK 2. jarduera: Udaleko arloen egituraketa 3. jarduera: Eskabide gutuna
2. LAN-SEKUENTZIA- HIZKUNTZA INSTITUZIOEKIKO HARREMANETAN 4. jarduera: Ereduak aztertu 5. jarduera: Hizkera argia, zuzena eta ulerterraza erabili 6. jarduera: Konbentzioak aztertu 7. jarduera: Teknologia berriak erabili
3. LAN-SEKUENTZIA- IDAZKI FORMALAK 8. jarduera: Egitarauak 9. jarduera: Eskabide gutuna 10. jarduera: Lan-skaerako aukezpen gutuna eta Curriculum vitae 11. jarduera: Eskola Kontseiluko akta 12. jarduera: Hainbat idazki mota
4. LAN-SEKUENTZIA- 13. jarduera: Azken ekoizpena: egoera aukeratu / nori zuzendu? 14. jarduera: Txostena errepasatu
AUTOEBALUAZIOA

0. MOTIBAZIO JARDUERA

1. Jarduera: Zer egingo duzue ikasturtea amaitzean?

Papalagi bakoitzak lanbide bat du. Zaila da zehaztasunez horrek zer esan nahi duen adieraztea. Hitz gutxitan esateko, lanbide bat edukitzea beti gauza berdina egitea da. Nire eskuek etxolak eraikitzea besterik egingo ez balute, nire lanbidea etxola eraikitzaile litzateke.

Errekako harriak adina lanbide dituzte papalagiek. Eskuekin nahiz buruarekin egiten duten orori deitzen diote lanbide. Pentsamenduak edukitzea edo izarrei begiratzea ere lanbidea da beraientzat.

Haurtzaroa utzi eta nerabezaroan sartzearekin batera, papalagi bakoitzak hautatu egin behar du bere geroko lanbidea eta gauza bakar hori nola egin ikasten pasatzen ditu egunak eta urteak. Horri bizitzarako prestatzea deitzen diote.

Epe horretan pentsamendu esfera mordoaren irenstera behartzen dituzte gazteak. Horri heziketa deitzen diote. Uler diezadazuen, heziketa burua ezagupenez bete-bete egitea da. Hezitako persona batek badaki zer den palmondoa, zenbat pisatzen duen koko batek..., dena daki. Prozesu hori jasan duen persona bati galdera bat egiten diozunean, zuk ahoa itxi baino lehenago egingo dizu tiro erantzun zuzenarekin. Bere burua munizioz beteta dago. Europar bakoitzak bere burua suzko kanoi bilakatzen erabiltzen du bizitzaren zatirik hoberena.

Eta hori guztia zertarako? Gauza bakar bat egiten ikasteko. Arraina jaten du, baina ez daki arrantza egiten. Fruta jaten du, baina ez du inoiz berak arbolatik hartzen...

Gauza bakar bat egiten jakite hori arrisku larria da eta muga handiagoa, iritsi baitaiteke egunen bat noiz persona batek ez baitu jakingo, bere kasa, bizitzako edozein gauza arrunt aurre egiten.

Baina papalagiek hori ez dute ulertzen...

Erich Scheurman, *Los papalagi: discursos de Tuavii de Tiavea*

Integral, Bartzelona, 1995 (egokitua)

- Tuavii samoar buruzagiak atzerrira egindako bidaia baten ondoren bere herritarrei zuzendutako hitzaldiaren zati bat da aurreko testua. Irakur ezazue eta eman erantzuna jarraian egindako galderari.

1. Zein dira papalagiak?
2. Igorlearen hitzetan, nola prestatzen dira bizitzarako papalagi gazteak?
3. Zein da bizitzaren zatirik hoberena samoarrentzat euren buruzagiaren hitzetan?
4. Bizitzaren zati horri buruzko balorazioa ematen duten hainbat esaera zahar dugu geure kulturaren. Esan ezazue zer balio egozten dioten.
 - *Ez fidatu ez gazteen zentzuaz ez zaharren osasunaz.*
 - *Gazteak nahi duena, zaharrak ahal duena.*
 - *Zaharrak, atzo, atzo, atzo! Gazteek, etzi, etzi, etzi!*
 - *Gaztaroa, aro eroa.*
 - *Gaztek hankak arin eta burua arinago.*
5. Zer erlazio dago aurreko esaeretan gaztaroari egotzitako balioen eta beste honek diotenaren artean?
 - *Baleki gazteak, baleza zaharrak.*
6. Une batean zera dio samoar buruzagiak: *Prozesu hori jasan duen persona bati galdera bat...* Zeri egiten dio erreferentzia *prozesu hori* sintagmak?
7. Zer dira munizioak?
8. *Hezitako papalagiak dena daki* dio testuak. Testuinguru horretan zein da *dena jakitearen* esanahia?
9. Modu positiboan ala negatiboan baloratzen du samoar buruzagiak papalagien *dena jakite* hori? Justifikatu zure erantzuna.
10. Zein da samoar buruzagiaren hitzaldiaren asmoa? Hautatu erantzuna.
 - Bere herritarrei, modu oso atseginean, atzerrian bizitako esperientziaren berri ematea.
 - Papalagiek jasotzen duten heziketari buruz daukan iritzia ematea.
 - Papalagien eta samoarren heziketa moduak konparatzea.
 - Papalagien jakinduriak sortu dion harridura adieraztea.
11. Erich Scheurman-ek idatziz jaso zuelako ezagutzen dugu aztergai dugun hitzaldia. Zuen ustez, zein asmok eraginda argitaratu du testu hau idazleak?
 - Irakurlea entretenitzea

- Zerbaiti buruzko hausnarketa bideratzea
- Bi kultura konparatzea

12. Zein da testuaren tonua? Justifikatu zuen erantzuna testuko adibideekin.

- Ironikoa
- Dramatikoa
- Mirespenezkoa

13. *Bizitzarako prestatzeko* beharrezkoak diren aprendizaiak aldatu egiten dira kultura batetik bestera nahiz denboran zehar:

- Testuak dioenez, zer eskatzen du samoar gazte batentzat bizitzarako prestatuta egoteak?
- Eta zauden kulturean, zer eskatzen du edota eskatu beharko luke zuretzat?
- Zer egiteko gai izan beharko luke bizitzarako prestatuta dagoen samoar gazte batek?
- Eta gurea bezalako kultura bateko kide den gazte batek?

14. Bidezkoa iruditzen al zaizu samoar buruzagiak gazte europarren bizitzarako prestakuntza modu horretan azaltzea? Arrazoitu zure erantzuna.

b.- Har ezazue eskolako AJA eta aztertu: zenbat atal ditu? Zer dio bakoitzean? Ikasleen eskubideak? Ikasleen betebeharrak?... Talde txikitan aztertu, eta gero ondorioak talde handian azaldu

Aginte organoak	Talde-aginte organoak	Pertsona bakarreko aginte- organoak

- Partaidetza-organo bereziak

- Bizikidetzako arauak

1. LAN-SEKUENTZIA: UDALEKIKO HARREMANAK

Instituzio edo erakundeekiko harremanez ari garen honetan, gertu daukagun bat Udala da. Zerbitzuak kudeatzeko hainbat sailetan egituratuta dago Udala. Ba al dakizue zein diren sail horiek? Eta beraien lana eta eginkizuna zein den?

a. 2. Jarduera: Udaleko arloen egituraketa

Beha iezaiozue jarraian honako koadro honi. Bertan ikus ditzakezue, eredu gisa, Udal bateko Sailak edo Departamentuak zein diren.

UDALEKO ARLOEN EGITURAKETA

Alkatetza	Gizarte sustapena
- Alkatetza	- Osasuna eta ongizatea
- Idazkaritza	- Emakumea
- Udaltzaingoa	- Gazteria
Barne kudeaketa Kalitatea	Euskara eta Kultura Sustapena
- Pertsonala	- Kultura
- Ogasuna eta kontuak	- Euskara
	-Hezkuntza
	-Kirola
Hiriqintza eta obrak	

- Arloen egituraketa kontuan hartuz, aipa ezazue honako ekintza bakoitza zer arloren esku egon daitekeen.
 - a/ Emakumea babesik gabe dagoenean, egoera aztertu eta baloratu.
 - b/ Trafikoa zaindu.
 - c/ Adin nagusikoek osasunari arreta berezia eskaini.
 - d/ Jaien antolaketa kudeatu.
 - e/ Herrian erraustegi bat egitea bideratu.
 - f/ Euskararen erabilerari bultzada eman, herriko elkartearekin eta ikastetxeekin batera.
 - g/ Erraustegiaren kutsadura-maila kontrolatu.
- Zer arlotara jo beharko zenuke jarraian zeregin hauek egiteko?
 - a/ Isun bat jarri dizutela eta, harekiko desadostasuna adierazi.
 - b/ Zergaren bat ordaindu.
 - c/ Etxeko sukaldea berritzeko baimena eskatu.
 - d/ Zerbitzu jakin bat zer arlotan eman diezazueketen galdetu.
 - e/ Zerbait galdu zaizuela eta norbaitek aurkitu ote duen galdetu.

Errenteriako udala



b/ Errenteriako udalaren web orrian sartu eta atalak apuntatu. Zenbat atal ditu zure udalak? Gazteei dagozkienak zeintzuk dira?

3. Jarduera: eskabide gutuna

- Irakur ezazue honako testu hau. Lore Agirre kazetariak gazteen eta administrazioaren arteko harremana nola ikusten duen deskribatzen digu elkarrizketan.

LOREA AGIRRE: (Gaztetxulo)

-Erakundeek gazteentzako ekimenak bideratzen dituztenean, askotan ez dute inongo oihartzunik. Zergatik?

Batzuetan horixe gertatzen da, beste batzuetan, ez. Zenbait herritan gaztetxeak ondo funtzionatzen zuen eta administrazioak gaztetxea itxi, haren ordez gaztelekua jarri du eta gaur egun ez doa inor. Zergatik? Alternatiba hori ez delako demokratikoa izan, gazteek ez dutelako gaztelekuaren kudeaketan parte hartzen, dena goitik behera egiten delako.

-Zer behar dute horrelako guneek ondo funtzionatu ahal izateko?

Gaztelekuak administrazioak sortu, baina gazteekin batera kudeatu behar ditu. Erakundeek gazteekin hitz egin behar dute eta beraiekin negoziatu. Ez dut esaten hamalau milioi eskatzen badituzte, eman behar zaizkienik, behar bada bai, beharbada ez, baina hori bai gazteekin negoziatu behar dute. Oñatiko gaztelekuaren adibidea oso esanguratsua da; administrazioak herriko gaztetxea itxi ondoren sortu zuen, eta hala ere, oso harrera ona izan du, bertako teknikariak aukera eman dielako bertako gazteei kudeaketan parte hartzeko. Hemen, Euskal Herrian ez dago aukera handirik, baina horrelako esperientziak aspaldi egiten hasi ziren Europako iparraldean. Herri horietan tradizio demokratiko handiagoa dute eta oso argi dute eremu horiek gizartearenak direla eta, hortaz, gizarteak berak kudeatu behar dituela.

Gaztetxulo aldizkaria

a/ Erantzun galdera hauek:

- Nor uste duzue dela testuaren hartzailea? Arrazoitu erantzuna
- Elkarrizketatuak, lehenengo galderari erantzuna ematean, dio: *alternatiba hori...* Zeri egiten dio erreferentzia izen sintagma horrek? Zer beharko luke alternatiba horrek demokratikoa izateko?
- Zein uste duzu dela elkarrizketaren komunikazio-asmoa?
 - Arazo baten kausak aipatzea
 - Egoera bat deskribatzea
 - Arazo bat azaltzea eta arazoari aurre egiteko konponbideak proposatzea
- Gazteen bi eremu aipatzen dira Lorea Agirreren elkarrizketan. Zertan ote dira antzekoak eta zertan desberdin leku horiek?

	GAZTELEKUAK	GAZTETXEAK
Kudeaketa		
Azpiegitura		
Egiten diren ekintzak bideratzen dituenak		
Ekintzak bideratzeko aukera egoteko norekin jarri behar izaten da harremanetan		

- Pentsa ezazue herriko gaztelekuko kide zaretela. Skate-ikastaro bat burutzen ari zarete, eta zailtasunak ikusita, udalari eskatu nahi diozue herrian skatepark bat egiteko.

Idatz ezazue udalera eskabide-gutuna. Horretarako, errepara iezaiezue kontrol-zerrendan aipatutako alderdiei.

KONTROL ZERRENDAA

- ✚ Idatzi leku izena eta data.
- ✚ Erabil ezazue udaleko arloen egitura azaltzen duen koadroa, eskabide-orria nori eta nora zuzendu jakin ahal izateko.
- ✚ Aurkeztu nor zareten.
- ✚ Azaldu zein den egoera.
- ✚ Justifikatu arrazoiak ahalik eta ondoen.
- ✚ Noren izenean egin behar duzue eskabidea? Ondorioz, zer pertsonatan idatzi beharko duzue?
- ✚ Zer pertsona gramatikal erabiliko duzue hartzaileari zuzentzeko? Zergatik?
- ✚ Banatu testua paragrafotan.
- ✚ Erlazionatu esaldi eta paragrafoetako ideiak kohesio egokien bidez.
- ✚ Ez ahaztu aldeztatik eskerrak ematea.
- ✚ Idatzi ondoren, trukatu zuen testua beste taldekoaren batekin eta proposatu zuzendu edota hobetu beharreko alderdiak.
- ✚ Kideen proposamenak baloratu eta behar diren zuzenketak egin ondoren, idatzi zuen behin betiko testua.

2. LAN-SEKUENTZIA : HIZKUNTZA INSTITUZIOEKIKO HARREMANETAN

4. Jarduera: ereduak aztertzen

Azter itzazue jarraian emandako testuak, eta osa ezazue ondoren datorren koadroa.

1 Eskal Herri osoa zeharkatu ostean, amaitu da 16. Korrika. Iritsi zaigu lehen orduko balorazioak egiteko ordua, eta AEK-k horren berri eman nahi du prentsaurreko honen bidez. Beraz, AEK-k eta Korrikak, euskal gizarteari eskerrak emateaz gain, jendaurreko balorazioa eskaintzeko emango duten prentsaurrekora gonbidatzen zaituztete.

Noiz: apirilak 7, asteartea

Non: Bilboko Kalderapeko Kulturgunean (Perro kalea, 1)

Ordua: eguerdiko 12:00etan

2



Lagun agurgarriak:

Gutun honen bidez, Hezkuntza Zentro horri zera ezagutarazi nahi diogu: Europako Parlamentuak “Kabuleko emakumeentzako lore bat” izeneko kanpainaren bitartez, deialdi bat egin nahi dio nazioarteko komunitateari datorren martxoaren 8an, Emakumeen nazioarteko egunean, emakume afganiarrei elkartasuna adierazteko. Afganistango emakumeak hautatu badira, batez ere Kabuleko emakumeek bizi duten egoera larriagatik izan da; hala ere, aukeraketa hori nazioartean onartutako eskubideak zapuzten diren beste toki batzuetako metafora gisa ulertu behar da.

Emakundek, Instituzioa den aldetik, Europako Parlamentuko kanpainari elkartasuna adieraziko dio, Erakunde horrek proposatutako kartela berea aginez. Zentro horrek gauza bera egin nahi baldin badu, kartelaren kopiak, koloretan, eskuraziko genizkioke.

Aipatutako informazioa lagungarria izango delakoan, Zentro horren erantzunaren zain geratzen gara. Agur bero bat.

Gasteizen, 1998ko otsailaren 9a

3



ASPIRINAK

ASPIRINA GEHIEGI HARTU BADUZU ...

SINTOMAK:

Tripako mina, beroaldia eta botalarria

Odoljarria ahoan eta eztarrian

Pultsu lasterra

Izardia

Aurpegia gorri-gorri

Lilura eta konorterik gabe gelditzea

ZER EGIN?: Berehala eraman ospitalera / bitartean goragalea eragin

ZER EZ EGIN: Ez eman bikarbonatorik



4

Xabier Garmendiari: (Intzineradoraren aitari)

Zubietan eraiki nahi duten Erraustegi planta horrek zuzenean kaltetutako herritar batzu gara.

Duguna baino gizarte hobea nahi dugu, naturarekiko eta inguruarekiko orekan atxikia, ororen gainera gizakien ongizate osoa baloratzen duena eta gure mundu zatia biharko herritarrei -gure seme-alabei eta bilobei-ahalik eta egoerarik onenean lagatzea nahi dugu.

Dudarik gabe, Erraustegia den proiektu arriskutsu eta kaltegarria gure etxe, bizileku eta lantokien inguruan jarri nahi dutelako berotu zaigu erreakzionatu beharraren argia. Horregatik ohartzen gara ez dela gure arazoa bakarrik: Errauste planta bat den hondamendi-tresna ez dugula onartu behar ez gure inguruan eta ez beste ezein lekutan.

Horrenbestez, agur:

Donostian, 2010eko apirilak 13

Orbeldiko Lagunak

5



NIK, KULTURA SAILEKO EUSKARAREN SUSTAPENERAKO ZUZENDARIAK

Atsegin handiz gonbidatzen zaitut, Isabel Armendariz Lopetegi, argitaratu berri dugun *Euskal kultura* liburuaren aurkezpenera.

Eguna: 1994-11-08 (asteazkena)

Ordua: 18:30

Tokia: Eusko Jaurlaritzako hitzaldi-aretoa

(Wellington Dukearen kalea 2, Gasteiz)

Nik, Anselmo Zubiaur Alkortak, bide batez, nire onginahia adierazten dizut.

Gasteiz, 1994ko azaroak 2

Oh: aurkezpenera gonbit hau eraman behar duzu.

IVAP/HAEE, Hizkuntza argiaren bidetik

6

ZUTABE aldizkaria

HABE

Prim, 7

2006 DONOSTIA

Andoain, 1986ko otsailak 20

Jaunak,

Duela zenbait hilabete zuen aldizkari horren harpidedun egin nintzen, euskara ikasten ari garenontzat tresna baliagarria izango zelakoan. Baina hartu dudan lehenengo alea irakurtzean ohartu naiz ez dela ikasleentzat egindako aldizkaria, irakasleentzat baizik. Beraz, nire izena harpidedun zerrendatik ezaba dezazuela eskatzen dizuet.

Besterik gabe, agur.

MIRIAN AGIRRE

HABEtik hartua

testua	IGORLEA			HARTZAILEA		
	Nor	Noren Izenean	Pertsona gramatik.	Norbanakoa	Erakundea	Pertsona gramatik.
1						
2						
3						
4						
5						
6						

a.- Beha eta aldera itzazue koadroko bi zutabe hauek. Zer ondorio atera daiteke?

- ✓ Zein da aurreko testu bakoitzaren komunikazio-asmoa?
- ✓ Zuen ustez, zer testutako igorlea zuzentzen zaio modurik inpersonalenean hartzaileari?
- ✓ Zer testutako igorleak darabil tonurik gogorrena bere adierazpenean? Zergatik?
- ✓ Zer motatakoa da aurreko testuetan erabilitako erregistroa? Zergatik?

b.- Hainbat erakunderen izenak aipatzen dira aurreko testuetan. Bila itzazu **Interneten** dituzten **web-orriak**, eta, haietan sartuz aurki eta hauta ezazu bakoitzari buruz jarraian eskatzen dizugun informazioa.

2. TESTUA

- ✓ Zer da **aek**? Zein da bere zeregina? Nork antolatzen du **korrika**? Zein da ekimen honen helburua?
- ✓ Zer da **Euskaltzaindia**? Noiz sortu zen? Zer zeregin hartu zuen bere gain Gerra Zibilaren aurreko urteetan (1919-1936)? Lortu al zuen?
- ✓ Zer ekarpen egin zuten garai horretako lanek?
- ✓ Zer erabaki hartu zuen Euskaltzaindiak Arantzazuko Biltzarrean (1968)?
- ✓ Gaur egun, non dago Euskaltzaindiaren egoitza? Ba al du ordezkariarik beste lekuren batean?

3.TESTUA

- ✓ Zer da **Emakunde**? Noiz sortu zen? Zein da bere xedea?

Jarduera hau aprobeztatu daiteke datak errebasatzeko (www.euskaljakintza.net)

5. jarduera: Hizkera argia, zuzena eta ulerterraza

a/ Testu honek ulertzeko lanak ematen ditu, ukatzailez josita dagoelako. Eman ezazue baiezkotan, errazago ulertzeko.

DBHko ikasle edota Eusko Jaurlaritzako bekadun direla egiaztatzen ez dutenak baino ez dira geratuko Hizkuntzak hobetzeko beka eskakizun aukeratik kanpo. Era berean, gurasoak zerga-kontuetan zorretan ez daudela dioen egiaztagiria aurkezten ez dutenei ere, ez zaie diru-laguntza hori jasotzeko eskakizuna onartuko.

b/ Berridatz itzazue ondorengo esaldi hauek komunikagarriagoak izan daitezten:

- Ez nekien hamasei urte beterik ez zituztenek ezin zezaketenik udalak antolatutako udaleku irekietako begirale izateko kurtsoan izen eman.
- Ordezkarri guztiak ez badaude, ez da bilerarik egingo.
- Zuzendaritza taldea ez da izan ekoizpen- sistemaren berregituratze proiektua enpresako eguneroko lana gertutik ezagutzen ez duen talde baten esku uztearen aldekoa.
- Ez da itzulpenik onartuko eros-tiketarik aurkezten ez bada.
- Santi Perez txirrindulari ohiak Espainiako Txirrindularitza Federazioak jarritako bi urteko zigorrari helegitea jarriko diola Espainiako Kirol Diziplina Batzordean esan du.

6.jarduera: Konbentzioak aztertzen

a/ Ondorengo testu hauetan hainbat sigla eta ikur agertzen dira. Taldean jarrita, identifika eta sailka itzazue laburtzapen motaren arabera. Siglen kasuan bereizi osaketa: letra bana hartuta edota hitz zatiak elkartuta (akronimoak).

- Zein da aurkitu duzun laburtzapen bakoitzaren esanahia?

NA-ko hizkuntza-politika, bere hartan

Hizkuntza Politikarako Batzordeak akordiorik gabe amaitu ditu lanak. Bozketarako aurkeztutako egitasmoak ez zuen egungo Euskararen Legea ia ezertan aldatuko, baina ez denez onartu, koma bat bera ere aldatu gabe geratuko da. PSN eta CDN taldeek onartu dute bakarrik NA-ko hizkuntza-politikari buruz batzordeak egindako azken testua. UPNk contra



Emakunde Sarein irabazleak nor diren jakinarazi dute

Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak sariak ematen ditu urtero hedabide, kirol, hezkuntza eta publizitateko ataletan. ETB, Luisa Etxenike idazlea hedabideetan, Durangoko Bidezabal atletismo taldea eta Beatriz Ugarte saritu ditu aurten hurrenez hurren. Publizitatean ez du inor saritu.

Berria, 2004-12-01

EHUk eta Euskalit fundazioak akordioa sinatu dute

Unibertsitatean kalitatea sustatzeko hitzarmena sinatu dute EHUk eta Euskalit, Kalitaterako Euskal Iraskundeak

Berria, 2005-03-22



Erdialdeko Amerikan hiesa oso azkar zabaltzen ari dela ohartarazi du NBEk



EB E-rantz zabaltzeko proposamenen aurrean "Turkia Europako Batasunean sartzen bada, EBrenak egingo du". Hau izan zen Europako Konstituzioaren egileetako baten, Valéry Giscard d'Estaingen, iragarpena. Izan ere, EBko hogeita bost herrialdeetako estatuburu eta gobernuburuak, Turkiaren integrazioa etorkizunean beteko ez den iragarpena izango dela agerian uzteko beste pauso bat eman zuten atzo

Berria, 2004-12-17

Sindikatuak haserre

Osalan, Laneko segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeak, "eregotzi zion; baita aginkortasunik gabeko erakundeak" dela ohartu zuen ELAk. "Burokratikoak eta geldoak" izatea egotzi zion; baita "patronalaren urratsak" jarraitzea ere. Era berean, egungo beharrak asetzen ez dituela salatu zuen euskal sindikatuak. "Neurriak hartu beharrean, gertatzen dena bildu baino ez dute egiten". UGTk, osterak, ELAri eta Confebask patronalari men egitea egotzi zion Osalani; osasun arauak zehatz ez betetzea LABek.

Berria, 2005-04-14

Aita santuarena ez da txarra. Beste hizkuntza batzuetan nola eman den ikustera ateratu naiz. *Es*-z, maiuskulaz ageri da beti: "Castro asiste a una misa funeral en memoria del Papa" *El Mundo*-k; beste horrenbeste *El Pais*-ek ere: "Multitudinario adiós al Papa". Letra larrien ideologiaz ohartzeko *DV*-rena: "La Procesión del Papa". En-ek, halatsuta: *The Times*-ek: "Millions gather for Pope"; *it*-z, "Flusso continuo per l'omaggio al Papa" *Corriere della Sera*-k, Ca-ek, "el Papa va pensar a dimitir" *Avui*-k. *Pt*-ez, *Público*-k: "A herencia

b/ Ondorengo esaldietan hainbat hitz eta esapide ez dira guztiz jatorrak, erdal hizkuntzen eraginez gure egin baditugu ere. Taldetan jarrita, berridatz itzazue euskarak kalko oker horiek ordezkatzeko dituen bitarteko egokiak erabiliz.

- ✓ Haiek ere bide berdinari jarraituko zioten beldur ziren.
- ✓ Alemaniar presidenteak dimititu egin du.
- ✓ Aire egokituaren sistemek aire hotza botatzen dute.
- ✓ Gonbidatuta geratzen zara liburuaren aurkezpena.
- ✓ Auzotarren gehiengoa kontra dago.
- ✓ Marka esponsorra gainean daramagu eta horren ordainetan ordaindu egiten digute.
- ✓ Pasa den astean ospatu ziren hauteskundeak.
- ✓ Ez nuen halakorik espero, flipatuta geratu nintzen hurrengo egunean ez joateko esan zidanean.
- ✓ Atentzioa deitzen zuen kotxe garbitu berriaren distirak.
- ✓ Udaletxearen pareko edifizioan dago udal liburutegia.

Ariketa analitiko gehiago lantzeko erabil ezazu web orri hau:
www.euskaljakintza.net

c/ Eskutiz honetan hainbat akats duzue. Azter itzazue erabilitako erregistroa, lexikoa, datuen errepikapena, koherentzia, informazioaren argitasuna, edukiaren antolaketa...Identifikatu akats eta berridatzi testua.

Kaixo, zuzendari, honen bitartez, azterketa egunen inguruan gelan sortu zitzaigun saltsa baten berri eman nahi dizugu. Pasa den astean ebaluazio saio honetako azterketak zer egunetan eta zer ordutan egingo genituen, hau da, gure tortura eguna zein izango diren azaltzen zuen orria eman zigun tutoreak. Ordutegia aztertu eta flipatuta geratu ginen; izan ere, bi egunetan kristorenak eta bi jasan beharko genituela ikusirik, finkatutako egutegiarekiko gure desadostasuna adierazio genion eta, horrekin batera, baita hizkuntzako azterketa egun pare bat atzeratzeko proposamena egin ere. Aldaketa hori egitea ez zegokiola berari eta hizkuntzako irakaslearekin hitz egiteko esan zigun gure tutoreak. Hurrengo egunean, martxoak 15an, gure zalaparta zela medio -aizu, arrazoi mordoa eman genion-, hizkuntzako irakasleak ontzat hartu zuen gure eskakizuna. Gaur, apirilaren 12, azterketa egunak iristear daudenean, horra non esaten digun tutoreak beste irakaslearekin egindako tratua pikutara doala, hasierako ordutegia dela guk bete beharrekoa, mailako irakasleek ebaluaziorako bilera eguna aurrez finkatuta dutela eta ezin dela azterketarik atzeratu. Irakasle batekin adostutakoa aintzat hartu behar ez duen galdetzean, erantzuna mundiala izan da; hasierako ordutegia da balizkoa eta kito! Horixe da, labur-labur, gertatutakoa. Hizkuntzako irakaslearekin hartuta geneukan erabakia ontzat emateko eta gure arazoa konpontzeko beste biderik ez, eta azkenean, zuregana jotzea erabaki dugu. Saltsa hau konponduko duzulakoan, agur.

Dbh-ko 4mailako ordezkariak

7. jarduera: teknologia berriak erabiltzen

Informazio jakin bat Interneten bilatzeko Web orrietako sarrera anitzen artean egokienetara jotzen jakitea; topatutako mezuak konparatuz bilatze-asmoari dagokiona hautatzen jakitea ..., hau da, erabakiak hartzeko gai izatea da edozein eremutan geroz eta gehiago eskatzen den gait asuna.

a/ Beha iezaiozue <http://www.donostia.org> helbideari, eta aurkezten dizugun egoera kontuan hartuta, eman erantzuna jarraian eginiko galderei. 16 urte dituzue. Ikasketak egitera hiriburu batera joan beharra duzu. Hautatu dituzun ikasketak Donostian baino ezin dituzu egin, eta zu Irunen bizi zara. Matrikula egiteko baldintzak irakurtzean hirikoek dutela lehentasuna ohartu zara, eta etxekeok diote Donostian erroldatzea edo enpadronatzea dela aukerarik onena. On line egitea erabaki duzu.

- ✚ Nola uste duzue irakurri behar dela orrialde hori? Azaldu zuen hitzetan zein diren atal nagusiak eta zein azpiatalak.
- ✚ Esan atal nagusi bakoitzera zer helburuekin zuzendu behar dugun.
- ✚ Zure helburua hirian erroldatzea da. Orrialdeko zein azpiataletara zuzendu beharko duzu? Eta azpiatal horretako zein izenbururen gainean klikatu beharko duzu tramite horren inguruko informazioa eskuratzeko?

- ✚ Internet bidez kontsultatu duzu zer egin behar den Donostian erroldatzeko. Zein dira aurkeztu beharreko agiriak?
- ✚ Interneteko web-orrialde bera erabiliz, eskura ezazu udal biztanleen erroldan izena emateko inprimakia.
 - Beha iezaiozu inprimakiak eskatzen duen guztia zuri dagokizun betetzea. Ba al dago zuri ez dagokizun zatirik? Zein?
 - Helbidea idaztea eskatzen dizute; zein da eman beharreko helbidea, zatozen etxekoa ala sartzan zarenekoa?
 - Zenbakituta dauden lerroetan datu berdinak eskatzen dira. Guztiak bete behar al dituzu?
 - Inprimakian zenbakiak parentesi artean agertzeak ba al du arrazoirik? Zein?
 - Bukatutako ikasketak atalean kodea eskatzen da; nora jo beharko duzu zure ikasketei dagokien kodea bilatzeko?
 - Demagun, Donostiara joandakoan, zure osaba-izeben etxean biziko zarela. Eman behar al da horren berri inprimakian? Horrela bada, non?
 - Nork sinatu behar du inprimakia?
- ✚ Zure nortasuna egiaztatzeko, hainbat agiri aurkeztu behar duzu.
 - Nahikoa izango ote da NANren bi kopia eramanda?
 - Demagun NAN eguneratu gabe duzula, zer beste dokumentu aurkeztu ahal izaten da horrelako kasuetan? Zerrenda itzazu dauden aukera guztiak.
- ✚ Donostian erroldatzeko funtsezkoa da non biziko zaren zehaztea.
 - Ikasle bat, ikasten ari den artean, Donostian bizitzeko hainbat aukera aipatzen ditugu jarraian. Aukera ezazu gustukoena duzuna edo, hobeto esanda, horretarako unea iritsitakoan zuretzat egokiena ikusten duzuna:
 - Ikasle erresidentzia batera joatea
 - Adineko pertsonak laguntzeko egoten diren proiektuen bidez, adinekoren baten etxean bizitzea.
 - Beste ikasle batzuekin, alokairuzko etxe batera joatea.
 - Hirian duzun senideren baten etxera joatea bizitzera.

- Pisu bat erostea, ikasten duzun bitartean, lanean ateratzen duzunarekin ordaintzekoa.
- Bururatzen zaizun beste aukerarik...

- ✚ Zer arrazoik eraman zaitu erabakia hartzera?
- ✚ Aukeratu duzun bizitokian bizi zarela ziurtatzeko, zer agiri aurkeztea pentsatu duzu? Agiria nork sinatu beharko duela uste duzu?
- ✚ Agiri hori bere horretan aurkeztearekin nahikoa al da?

b/ Web-orriko *Bizitzeko hiria* atalean, kirolaren tartean klikatuz gero, kirol-txartelaren inguruko informazioa daukazu. Aukeratu zein izenbururen gainean klikatu behar den informazio orokorra jasotzeko. Ondoren, irakur ezazu bertan esaten dena eta erantzun galderari.

- ✚ Zer da kirol-txartela?
- ✚ Informazioaren arabera, zer aukera ematen du kirol-txartelak?
- ✚ Informazioan esaten den moduan, kirol-espazio batzuek doako erabilera dute, baina baldintza batzuekin. Zein dira baldintza horiek?
- ✚ Badira prezio egokia ordainduta erabil daitezkeen beste espazio batzuk. Baina zer esan nahi da prezio egokia terminoarekin?

c/ Oraingoan, atzerrian hizkuntza ikastaroak egiteko beka-deialdi baterako inprimakia bete behar duzue.

- ✚ Irakur ezazue ondorengo testua eta erantzun galderak.



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA
Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza
Pedagogi Berritzapena

BALDINTZAK

Agindu honetako deialdian jasotzen diren plazetako bat lortu ahal izateko honako baldintza hauek bete behar dira:

- 2008/2009 ikasturtean beken deialdi orokorreko beka-onuraduna izatea (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren 2008ko uztailaren 29ko Agindua, irailaren 1eko EHAA n argitaratuta).
- Plazak betetzen ez badira bekadun ikasleekin, bekadun ez direnek ere, lurralde eta txanda bakoitzean geratu diren plaza horiek betetzeko aukera izango dute,

baldin eta gainontzeko baldintzak betetzen badituzte eta puntuaziorik handienak atera badituzte.

b) Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak aurreko urteetan atzerrian ikastaroak egiteko deitu dituen plazen onuradun ez izatea.

c) Eskatutako plazari dago(z)kion hizkuntza(k) 2007/2008 eta 2008/2009 ikasturteetan ikasi izana, azkeneko hau Autonomi Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe batean.

e) Eskatutako hizkuntzan gutxienez 6ko puntuazioa izatea eta gutxienez 15eko puntuazioa izatea nota hau eta 2008/2009 ikasturteko batezbesteko nota batuta.

f) 2010. urtean 19 urte betetzea, gehienez.

www.hezkuntza.net/ikasleak

- Demagun, aurten etorri zarela Euskal Herrira, gurasoen lana dela eta azken 5 urteetan atzerrian bizi izan ondoren. Zer egin beharko zenuke, kasu horretan, beka eskatu ahal izateko?
- Eta Euskal Herrian beti bizi izanda eta aurreko ikasturtean beka jaso izanez gero, aukera izango al zenuke aurten atzerrian hizkuntza-ikastaroak egiteko?
- Ikasketetako zure emaitzak ez dira ospatzeko modukoak; azkenaldian arlo gehienetan kili-kolo zabiltza eta gainditzen dituzun bakarrak atzerriko hizkuntza eta soinketa dira. Zure emaitzak ikusiz, arazorik izango al zenuke beka eskuratzeko? Zergatik?
- Goian duzun web-orrira jo, eta bekak, diru-laguntza atalean, atzerrian hizkuntzak ikasteko eskaera orria inprimatu eta bete.

d/ Demagun, udako plan bila zabiltzala eta interneteko <http://www.euskadi.net/> gazte aukera helbidean ideia erakargarri bat topatu duzula. Jo ezazu helbide horretara, eta zoaz *Euskadiko Gazteria Lankidetzan* programaren inguruko informazio baliagarria topatzera. Hainbat aldiz klikatu beharko duzu *Gazte Lankideak* sailera iritsi arte, baina kontuan hartu, aukeraketa egokian egongo dela azken emaitza.



- *Euskadiko Gazteria Lankidetzan* tituluak klikatu ondoren sarrera gisa testu bat dago. I rakurri eta erantzun galderai:
 - ✓ Zein da programa horren helburua?
 - ✓ Izena ematen duten gazte guztiak programan parte hartu ahal izateko aukera izango al dute?

- ✓ Zein dira parte-hartzaileen betebeharrak? Eta ezaugarriak?
- Orain, programa horretan parte hartzeko eskabidea inprimatu eta bete.

3. LAN-SEKUENTZIA: IDAZKI FORMALAK

8. jarduera: Egitarauak

a/ Egitarauak nola idatzi

Ospakizunak, ikastaroak, ekitaldiak eta antzekoak aditzera emateko erabiltzen ditugu egitarauak. Argi eta labur idatzi behar dira.

➤ **Edukia antolatze modua:**

- Orriaren goiko aldean izenburua idatzi (horren bidez adierazten dugu zer egin behar den). Beherago, non eta noiz egin behar den.
- Ondoren, egin beharrekoen berri eman: egunez egun eta orduz ordu
- Orriaren beheko aldean, azkenik, gainerako zehaztasunak: izena emateko epea, zenbat eta non ordaindu behar den, gehienez ere zenbat ikasle/ikusle/entzule...

➤ **Idazteko garaian eduki kontuan, gutxienez, honako hauek:**

- Data ondo idatzi
- Orduak ere ondo idatzi (berikusi euskaltzaindiaren arauak)

a/ Sar zaitetze Errenteriako web-orrian, gazte informazio buletina atalean, eta aukera ezazue egitarau bat

b/ Egunkarietan ohikoak diren agenda-oharrak dituzue ondoren. Esan esazue esaldi horietatik zein den zuzena eta zein okerra. Behar diren aldaketak egin eta justifikatu.

- BAIONA. Bertsolariak ikastolarat. Gaur; 20:15ean, Etxepare Lizeoan.
- BILBO. Toti Martinez de Lezearen hitzaldia. Bihar, 19:30ean, Euskaltzaindiaren egoitzan.
- IRUÑEA. La primavera siempre vuelve. Gaur, 8-etan, Nafarroako Antzerki Eskolan.
- SANTZURTZI. Etxe kantautorea. Bihar, astelehena 7, 20:00etan, La kelo gaztetxean.
- DURANGO. Terry Lee Hale. Bihar; apirilak 20, 21:30etan. Plateruena kafe antzokian.

- BARAÑAIN. PiLT. Bihar, 21:45etan, auditorioan.
- BERMEO. *Euskal kulturaren egoera* mahai-ingurua. Gaur, asteazkena 20. Hizlariak: M. Otamendi, P. Etxegoien eta X. Isasi.

c/ Eman dezagun gure ikastetxeko urteurrena ospatzeko, bi eguneko jaiak antolatu nahi ditugula. Ondorengo egitarau hau imitatuz, sor ezazue ospakizun horren berri emateko iragarkia

ERRETERIA DANTZAN' 10 ERRETERIA

Uztailak 10 larunbata, 20:30etan Gamon Zumardian

FOLKLORE JAIALDIA. Siziliako eta Euskal Herriko dantzak.

Ereintza Dantza Taldea eta Siziliako CITTA DEI TEMPLI taldea.

Uztailak 11 igandea, 13:00etan Xabier Olaskoaga Plazan

MUSIKA ETA DANTZA EMANALDIA.

Udal Txistu Taldea, Ereintza Dantza Taldea eta CITTA DEI TEMPLI taldea.



ANIMA ZAITEZ !!!!

- Kontuan izan, bereziki, nola idazten diren datak eta orduak.

9. jarduera: Eskabide gutunak: Osagaiak

Goiburua

Norentzakoa. Hartzailearen datuak goialdean, eskuinean.

Sarrerako agurra. Agur zaharkituak alde batera utzi. Honelakoak hobetsi: Jaun/Andre agurgarria

Jaun / Andre hori

Gorputza

Eskatzailearen datuak. Nahitaez, eskatzailearen datu hauek adierazi behar dira: izen-deiturak, helbidea eta NAN zenbakia.

Azalpena

Eskaera

Oina

Eskertzeko eta agurtzeko esaldia

Izenpea

Tokia eta eguna

Noizbehinkako argibideak.

a/ Idatz itzazu honako eskabide-gutun honetan falta diren hitzak. Ondoren, eskabide-gutunaren osagaien eta beraien antolaketari buruz ikasitakoa aplikatuz, bereizi gutun horren osagaiak.

Isabel Kortazar Goikoetxea

Administrazioa Euskaraz aldizkariko zuzendaria

HAAE-Adriano VI, 20
01008 Gasteiz

.....1..... hori,

.....2....., Ane Urbinak, Biasteriko Udaleko Euskara Zerbitzuko Arduraduna3....., zuregana jotzen4..... zera5.....:

Gure udaleko Euskara Zerbitzua orain dela hiru urte sortu zen Errioxako administrazioetan6.....bultzatzeko.....7.....8..... horietan ekintza ugari bideratu dugu gure langileen9..... trebakuntzan sakontzeari begira eta10..... jarraitzeko lagungarri11..... HAAEn hiruhilabetero12..... Duzuen13..... aldizkaria.

.....14.....hauxe15..... :

.....16.....argitaratzen duzuen17..... aldizkaria gure udaleko langile bakoitzari18.....

.....19..... agur.

Biasteri, 2005eko maiatzak 25

.....20..... : idazki honekin21..... bidaltzen22..... langileen izenak eta helbideak.

b/ Datorren ikasturtean urrutira joango zara bizitzera eta herrialde horretan ikasketak jarraitu ahal izateko ezinbestekoa duzu **DBHko tituluaren egiaztagiria. Eskatu dokumentu hori ikastetxeko zuzendariari.**

c/Ondoan duzun kontrol-zerrendaz baliatuz, behelaldean duzun testua aztertu eta berridatzi behar diren zuzenketak eginez, honako bi moduetara:

- Informazioa modu garatuan emanaz
- Informazioa eskema gisa adieraziz

Londres 2011-06-15

Nik, Maite Sagarzazu Alberdi, Aita Lertxundi kalea 45, 2.ezkerrean bizi zen eta NAN zenbakia 90456789 duen eta 16 urte dituen ikasleak:

AZALTZEN DU:

- Errenteritik Londresera bizitzera etorri behar izan dudalako.
- Errenterira aste bukaeretan joan ezin naizelako
- Londresen ikasketak jarraitu behar ditudalako
- DBHko ikasketak burutu ditudaneko egiaztagiria behar dudalako

ESKATZEN DU:

Josu Agirrerri, Gamon institutuko zuzendariari, mesedez, DBHko ikasketak burutu ditudala egiaztatzen duen kopia bat konpultsatzeko eta bidal dezala honako helbidera:

26, MELTON ROAD
6SW 3ND NEWCASTLE
ENGLAND

Hala ere, zuretzat horrek suposa dezakeen gastua nire gain geratuko da.

Aurrez eskerrak emanez, agur.

Maite

GUTUNAK BERRIKUSTEKO KONTROL ZERRENDA

KOMUNIKAZIO ASMOA

- Gutunaren asmoa argi ageri da? Gogoan izan ez dela komeni gauzak nahastea. Argiak eta zehatzak izan behar dugu.

KONBENTZIOAK

- **Igorle/hartzailearen tratamendua**
 - Lehenengo pertsonan idatzita al dago?
 - Hartzaileari 2. pertsonan zuzendu al zara?
 - Zeure buruari eta hartzaileari erreferentzia egiteko erabilitako marka linguistikoak, deiktikoak, egokiak al dira eta zuzen erabilia al daude?
 - Mantendu duzu erregistro formala testu osoan
 - Egokiak dira kortesia adierazteko erabili dituzun hizkuntza-bitartekoak?
- **Data eta tokia**
 - Ondo idatzita daude?
- **Laburtzapenak**
 - Zuzen aplikatu dituzu testuan siglak, ikurrak nahiz laburdurak idazteko arauak?

EDUKIA ETA BERE ANTOLAKETA

- Edukiak eusten al dio idazkiaren komunikazio-asmoari?
- Hartzailleak ulertzeko moduan ematen da edukia?
- Bereiz al daiteke goiburua, gorputza eta oina?
- Atal bakoitzaren helburua argi al dago?
- Eta atalen arteko erlazioa?
- Idazkiaren atalen bat informazioaz gainezka al dago?
- Izenburuak, jarri badira, adierazgarriak al dira?

HIZKERA

- Ba al dago esaldi luze eta korapilatsurik?
- Baiezko bihur daitekeen ezezko esaldirik?
- Alferrikako errepikapenik?
- Lexikoa zehatza eta gaiari dagokiona da?
- Jarri al duzu deklinabide-atzizki bera daraman hitzik elkarren segidan?
- Ba al dago ortografia-akatsik?
- Puntuazio-markak ondo erabili al dira?

DISEINUA

- Informazio multzoak ondo banatuta daude?
- Izenburuak erabili badira, argi bereizita al daude?
- Letra mota egokia da? Ulergarria?
- Marjinak zainduta daude?



10. jarduera:a/ lan-eskaerarako aurkezpen gutuna

Enpresa edota erakunde bati lanpostu baterako eskabidea egiteko idazki mota da. Zure nortasuna eta prestakuntza aurkeztea du helburu; lan-eskaintza egin duenak, zure merituak ezagutuz, lanpostu horretarako hautatzeko informazioa eduki dezan.

A. Goiburua

1. Norentzakoa, goialdean, eskuinean
2. Sarrerako agurra

B. Gorputza

3. Lanpostuaren berri nola izan duzun

4. Lanpostua betetzeko zure gaitasuna

C. Oina

5. Azken agurra

6. Izenpea

7. Tokia eta eguna

b/Curriculum vitae

Curriculumean eskatzailearen nortasunari, prestakuntzari eta lan-esperientziari buruzko daturik aipagarrienak jasotzen dira, beti ere, eskuratu nahi dugun lanpostuaren ezaugarrien arabera.

Sartu beharreko datuak hautatu ondoren, informazioa ondo egitaratu eta era objetiboan aurkeztu.

Osagaiak:

1. Norberaren datuak
2. Ikasketak
3. Ikastaroak
4. Hizkuntzak
5. Laneko esperientzia
6. Izenpea
7. Egiaztagiriak

Ondorengo iragarkietan oinarrituz, idatzi lanpostu horietarako aurkezpen-gutunak eta dagozkien curriculum vitae


SUKALDEAN lan egiteko jendea behar dugu, berehala lanean hasteko. Gutxieneko eskarmentua behar da. Egun osoz. Bidali curriculum vitae 94 428453 fax-zenbakira

SALTZAILE bat behar dugu jostailu-denda baterako. Interesa duzuenok, bidali curriculum vitae 202 posta-kutxatilara. 20001, Donostia.

11. jarduera: Akta

AKTA

Euskal Herriko Unibertsitatearen funtzionamendurako erabaki asko eta asko bileretan hartzen dira, eta bileran gertatutakoa aktetan idazten da, horrela jasota gera dadin. Aurreko bilerako aktak hurrengo bilera-deiarekin bidaltzen dira. Horrela, bileran parte hartu behar dutenek aurreko bileran gertatutakoaren berri izango dute, eta, hala badagokio, beren oniritzia adierazi ahal izango dute.



ADIBIDEA

izenburua

FAKULTATE-BATZORDEAREN AKTA

bileraren datuak

Batzordea: Fakultate Batzordea
Eguna: 2004ko otsailaren 19a
Lekua: bilera-gela
Ordua: 12:00
Iraupena: ordubete

bertaratuak

Etorritakoak:
Ana Cocera, dekanoa
Ander Urteaga, Fakultateko idazkaria
Jose Barbarin, irakaslea
Maria Lustres, administratzailea
Martin Atxotegi, AZP
Ibon Ortiz de Urbina, ikaslea
Izaro Gallastegi, ikaslea
Oier Alda, ikaslea

Ez dira etorri:

Pilar Lizarazu, dekanordea
Maddi Flores, irakaslea

gai-zerrenda

GAI-ZERREDA:

1. Aurreko bilerako akta irakurri eta onartzea
2. Dekanotza-taldearen informazioa
3. Fakultateko Batzorderako Hauteskundeetarako Egutegiaren proposamena onartzea
4. Galde-eskeak

azalpenak eta erabakiak

1. **Akta** bere horretan onartu dugu
2. **Dekanotza-taldearen informazioa:**
 - Azken Gobernu Batzordeko informazioa: kontratazioaren inguruko arazoak eta aurrekontuen inguruko zalantza
 - Campuseko Batzordea: proposamena egin zen *Numerus Claususa* jaisteko, 200etik 175era
 - Erabaki gabeko gaiak: Kalkulu Zentroa ekainean zabalduko dute
 - Txosten ekonomikoa: administratzaileak 2003ko azalpenak eman ditu
3. Fakultateko Batzorderako **Hauteskundeetarako Egutegia** (eranskinean): bere horretan onartu dugu
4. **Galde-eskeak:** ikasleen ordezkariak kexu dira, Isaias Del Puerto irakasleak ebaluatzeko erabilitako prozedurak direla-eta. Dekanoak idatzi egingo dio irakasle horri, araudiak zertan diren gogorarazteko.

amaiera

Besterik ezean, bilera 13:00ean amaitu dugu, eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau sinatzen dut Dekanoaren oniritziarekin

toki-egunak

Bilbon, 2004ko otsailaren 19an

izenpea

Dekanoak O.E.

Idazkaria

Ana Cocera

Ander Urteaga

- **Azter ezazue ikastetxeko OOGren azken akta**

12. jarduera: Idazkiak

Agiriak.net helbide honetan aurki ditzakezue agiri mota desberdinak. Azter itzazue:

- orokorretan: bilera deia eta egiaztagiria azaltzea
- bestelako idazkiak: eskaera irakasleari eta haurra eskolara joan ez izana azaltzea

agiriak.net

4.-LAN-SEKUENTZIA: Txostena sortu eta gutuna idatzi

13. jarduera : Egoera bati buruzko txostena egin eta Udaletxeko sail batetara edo Organo Gorenari zuzendutako instantzia

Txostena planifikatzeko irizpideak:

1.- Definitu komunikazio-egoera

- Zein da zuen asmoa gutuna idaztean?
- Zer da idazkiaren bidez lortu nahi duzuen?
- Nori zuzenduko diozue?

2.- Ideiak zerrendatu eta hautatu

- Zer da eskatzen duzuen?
- Zein dira zuen eskakizuna arrazoitzeko edo argitzeko azalduko dituzuen informazioak, datuak...?
- Zerrendan dituzuenetatik, zein dira zuen komunikazio-asmoa betetzeko esanguratsuenak iruditzen zaizkizuenak?
- Eskutitzaren osagai guztiak kontuan izanik, zer beste informazio eman behar duzue

3.- Edukia antolatu

Nori zuzendu : Udaletxera edota eskolako Organo Gorenari

Nola bidali :

- Udalara: postaz edo korreo elektronikoz

- Eskolako Organo Gorenera: aurkezpen publikoa

14. jarduera : Instantzia bidali baino lehen ziurtatu datu guztiak ondo daudela.

- Norentzakoa
- Izenburua
- Eskatzailearen datuak
- Azalpena
- Eskaera
- Oina
- Oharra

1. AUTOEBALUAZIOA

Instantzia bidali edo aurkeztu dugunez, egindako lana baloratzea baino ez zaigu geratzen. Horretarako, erantzun galdera hauek:

UNITATEA BALORATZEKO GALDEKETA

1. Unitate honetan ikusitako edukietatik zein interesatu zaizu gehien eta zein gutxien?

- Egitarauak
- Lan eskaerarako aurkezpen gutuna
- Curriculum vitae
- Eskola kontseiluko akta
- Eskaera irakasleari
- Landutako testuen ezaugarriak
- ...

2. Zure ustez, ba al da gehiago landu beharko litzatekeen edukirik? Aipa itzazu.

3. Zein jardun kostatu zaizkizu gehien?

4. Zein jardun kenduko zenituzke?

5. Azken ekoizpena prestatzeko laguntza eta informazio nahikoa izan duzu.
6. Aipa itzazu unitate honetan ikasitako eta zure ustez eguneroko bizitzarako baliagarriak diren gauzak.
7. Nola baloratuko zenuke amaitu berria duzun unitatea?
 - Unitatearen edukiak:
 - Erabilitako metodologia:
 - Erabilitako materialak:
 - Saioen erritmoa:
8. Zure ustez nola hobetu daiteke unitate hau?